

## TREBAKUNTZA 2018-02: PUNTUAK ZENBAKIETAN, URTEETAN...

Udal idazkiak sortzerakoan, askotan zalantzak izaten ditugu: urteetan puntua jarri ala ez, kopuruetan puntua jarri ala ez...

**OHARRA:** Asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* **1.991.** urtean sortu zen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea.
2. \* Kontu-hartzaileak esan du aurtengo aurrekontuan **12000** euroko kreditu aldaketa egin behar izan dugula.
3. \* Izar Mendieta Leturia, **78.856.916R** NAN zenbakiduna, ez da ohiko bizilekuan egon jakinarazpena ematera joan garenean.
4. \* **48.141** da Dimako posta kodea; jakina denez, Bizkaiko udalerrri batez ari garela adierazten dute '48' lehen bi digituek.
5. \* Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: **943.708. 233.**

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Urteak milako punturik gabe idazten dira.

Ad. **1991.** urtean sortu zen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Horrez gain, "urte" hitza erabiltzerakoan puntua jarri behar da amaieran (*1991. urtean*), eta bestela ez (*1991n*).

2. Milatik gorako zenbaki osoetan, digituak hiruak multzokatuta eta puntuz bereizita idazten dira; eta, zatiki hamartarrak, komaz bereizita.

Ad. Kontu-hartzaileak esan du aurtengo aurrekontuan **12.000** euroko kreditu aldaketa egin behar izan dugula.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a  
[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

3. NAN zenbakietan ez da punturik jartzen.

Ad. Izar Mendieta Leturia, **78856916R** NAN zenbakiduna.

4. Posta kodeetan ere ez da punturik jartzen.

Ad. **48141** da Dimako posta kodea; jakina denez, Bizkaiko udalerrri batez ari garela adierazten dute '48' lehen bi digituek.

5. Telefono zenbakiak ere puntu barik idazten dira, hironaka.

Ad. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: **943 708 233**.

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: [iratxe.udalak@uema.eus](mailto:iratxe.udalak@uema.eus) (Iratxe)

Hurrengora arte!

#### Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.eus](http://www.uema.eus)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Aialde 2  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99